



**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN IKASKUNTZA
ZERBITZUA INSTITUZIONALIZATZEKO ESPARRU
DOKUMENTUA**

Arlo honek sustatu eta aurkeztua:

Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko Errektoreordetza

Egileak:

Gezuraga Amundarain, Monika

Amiano Bonatxea, Iratxe

Cruz Iglesias, Esther

Arriaga Sanz, Cristina

López Velez, Ana Luisa

Alonso Sáez, Israel

Data: 2023-05-30

AURKIBIDEA

Esparru dokumentuaren helburua	3
Lege eta erakunde esparrua	3
A) Nazioartean	3
B) Estatu mailan	3
C) Euskal Herriko Unibertsitatearen mailan (aurrerantzean UPV/EHU)	5
I - Zren definizioa eta elementuak	8
I - Zren onurak	9
A) I - Z unibertsitate testuinguruan	10
B) I - Z nazioarteko panoraman	10
C) I - Z Euskal Autonomia Erkidegoan eta estatu mailan	11
D) I - Z UPV/EHUn	12
Erreferentzia bibliografikoak	10

ESPARRU DOKUMENTUAREN HELBURUA

Dokumentu honen helburu nagusia da oinarriak ezartzea Ikaskuntza – Zerbitzua (aurrerantzean I - Z) Euskal Herriko Unibertsitatean **jaso, aitortu eta babestua izan dadin**, bere baitan finkatu beharreko hezkuntza estrategia gisa, "EHUagenda2030" (EHU, 2019) eta Unibertsitateko Gizarte Erantzukizuna (Amiano, 2019; CRUEren iraunkortasun batzordea, 2015; Gezuraga, 2017) eraginkortasunez garatzeko konpromiso eta ekintza esparruaren barruan.

LEGE ETA ERAKUNDE ESPARRUA

A) NAZIOARTEAN

Adierazpenak eta konpromisoak sinatu egin dira goi mailako hezkuntza erakundeetan gizarte erantzukizuneko politikak eta iraunkortasunaren sustatzea bultzatu eta erdiesteko, curriculumari aipamen berezia eginez (Talloires, 1990; Unesco, 2009).

Egungo unibertsitateak dituen erronketako batzuetan aurrera egitea ahalbidetzen duen proposamena da I - Z, literatura akademikoak nabarmentzen duen moduan:

- Gizarteak konpaketutako profesionalen prestakuntza (Kandel, 2013; Martínez, 2010).
- Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizunaren garapena (Gezuraga, 2014; Marqués, 2014; Tapia, 2010).
- Irakaskuntza, Ikerkuntza eta Hedapenaren misioen arteko lotura (CLAYSS, 2014, Coppola, 2012).

Ekintzak ere jarri dira abian Europar Batasunaren esparruan, hala nola *Europe Engage - Developing a Culture of Civic Engagement through Service-Learning within Higher Education in Europe* proiektua. Europe Engage azterlanak oinarrian du ikaskuntza zerbitzuaren kontzeptualizazioa, goi mailako hezkuntzan konpromiso zibikoa integratzen eta garatzen duen ikuspegi pedagogiko gisa, eta erakusten du I - Zren instituzionalizazioa gero eta ohikoagoa dela ibilbide luzeko historia duten herrialdeetan, hala nola AEBetan, Irlandan eta Erresuma Batuan. Baina literaturan adierazitakotik edo Europako unibertsitateek borondatez abiarazitako ekintzetatik harago, gaur egun eskakizun bihurtu da goi mailako hezkuntzaren egunerokotasunean I - Z ikuspegi pedagogiko gisa gehitzea, Espaniako estatuan indarrean dagoen araubideak hala agintzen baitu, hurrengo atalean adieraziko den bezala.

B) ESTATU MAILAN

Unibertsitate politikak behartu egiten gaitu geure lan dinamikak birpentsatzen eta eredu inklusiboagoetara, arduratsuagoetara hurbildu eta igarotzera, erronka global handiei erantzuteko gai izango bagara. Honako hauek lirateke irakaskuntza metodologia hori instituzionalizatzeko beharra berresten duten estatuko zenbait erreferentzia:

- 2005ean (2012an eguneratua), CRUEren batzar nagusiak "Curriculumean iraunkortasuna sartzeko jarraibideak" dokumentua onartu zuen. Dokumentu honek aitortzen dio goi mailako hezkuntzari Giza Garapen Iraunkorra lortzeko tresna gisa duen

eginkizuna, unibertsitateei galdegiten dielarik lagunza instituzionala eman dezatela, hezkuntza paradigmak iraunkortasunarekin koherentziaz aldatu ahal izateko, eta iraunkortasunean heztekos susta ditzatela, ikaskuntza zerbitzua esaterako.

- Abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretuaren 64.3 artikulua (1791/2010 Errege Dekretua, **Unibertsitateko Ikaslearen Estatutua** onartzen duena). Horren arabera, unibertsitateek gizartearekiko eta herritarrekiko erantzukizuneko praktikak bultzatzen dituzte, titulazio desberdinetan ikaskuntza akademikoak eta komunitateari eskainitako zerbitzua bizi kalitatea hobetzera eta gizarteratzen bideratuta.
- **Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizuna**, 2015eko Unibertsitate *Estrategiaren esparruan jasoa* (*La responsabilidad social de la universidad y el desarrollo sostenible [Unibertsitatearen gizarte erantzukizuna eta garapen iraunkorra]*). Hezkuntza Ministerioa. 2011). Helburu nagusien artean dira unibertsitateen erantzukizun sozialaren instituzionalizazioa, orokortzea eta sistematizazioa, bai eta unibertsitatearen iraunkortasuna bultzatzea ere.
- 2015eko maiatzean, CRUEren jasangarritasunerako batzorde sektorialak (lehengo CADEP) **dokumentu tekniko bat** onartu zuen, izenburu honekin: “**Institucionalización del Aprendizaje-Servicio como estrategia docente dentro del marco de la Responsabilidad Social Universitaria para la promoción de la Sostenibilidad en la Universidad**” [*Ikaskuntza zerbitzuaren instituzionalizazioa, unibertsitateko gizarte erantzukizunaren esparruan irakaskuntza estrategia gisa, unibertsitatean iraunkortasuna sustatzeko*]. Dokumentu honetan aitortzen da I - Zk funtsezko zeregina duela curriculumaren iraunkortasuna unibertsitate gelatik haratago proiektatzeko estrategia gisa, osagai etiko eta hausnarketa kritiko sendoaz, ikasleek iraunkortasunari lotutako arazoak konpontzeko duten gaitasuna sustatzen duelarik.
- 822/2021 Errege Dekretuak ezartzen du unibertsitate titulu ofizialen ikasketa planek printzipio eta balio demokratikoak eta GJHak izan behar dituztela erreferentzia gisa. Horrek esan nahi du unibertsitateek GJHekin eta irakaskuntzaren arloko jasangarritasunarekin lotutako ildo estrategikoak txertatu behar dituztela gobernantzan, hala nola I - Zren instituzionalizatzea.

Egindako bide horren ondoren, Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoak (BOE, 2023/03/22) nabarmentzen du bertako artikuluetan goi mailako hezkuntza erakundeek sustatu behar dutela unibertsitate komunitateak, demokrazia, berdintasuna, gizarte justizia, bakea eta inklusioa sustatzearekin eta Garapen Jasangarriko Helburuekin lotutako jarduera eta proiektuetan parte har dezala.

Era berean, Zientzia Irenkiaren beharra aipatzen du, jakintza bere egiten duena ondasun komun, eskuragarri eta merkaturatu gabe gisa, hots, herritarren zientzia modu partekatuan jakituria eraikitzen duena, ikerketaren konplexutasuna kolektiboki bere gain harturik. Eta gizarte eta lurrardeko kohesioari dagokionez, azpimarratzen du unibertsitateek garapen ekonomiko eta sozial ekitatiboa, inklusiboa eta iraunkorra sustatu behar dutela, kalitatezko enplegua sortzen eta lurraldearen ongizate estandarrak hobetzen lagun dezan. Horretarako, tokiko administrazioekiko eta inguruko gizarte eragileekiko lankidetza indartuko dute, Herritarren Zientziari eta ikaskuntza zerbitzuari buruzko proiektuen bidez.

Araubidearen aldaketa horri guztiari erantzun ahal izateko, eta Goi Mailako Hezkuntzaren barruan ikaskuntza zerbitzuaren (I-Z) instituzionalizazioa sustatze aldera, Unibertsitateko Ikaskuntza Zerbitzurako Estatuko Sareak (APS(U) sarea) Kanarietako Goi mailako Hezkuntzako Ikaskuntza Zerbitzuari buruzko Adierazpena aurkeztu zuen, Ikaskuntza Zerbitzuari buruzko X.

Kongresu Nazionalean eta IV. Nazioarteko Biltzarrean (Las Palmas, 2021), Espainiako unibertsitate guztiei dei egin zitzaielarik adierazpen horri atxiki eta publiko egin zezatela.

C) EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN MAILAN (AURRERANTZEAN UPV/EHU)

Gure unibertsitate politika markatzen duten erreferentziazko dokumentuek ere justifikatzen dute I-Zren instituzionalizazioa

- **Unibertsitate honen ESTATUTUAK (17/2011 ED, 2011/02/24ko EHAA):**

“4. artikulua. Hauak dira UPV/EHUREn helburuak:

- a) Jakintza sortu, kritikatu eta zabaltzea eta jakintzaren aurrerabidea eta gizartearen garapena sustatzea, ikerketaren bitarbez eta ikerketaren emaitzak gizarteratuz.
 - b) Euskal gizartearen ondare intelektual, humanistiko, kultural eta zientifikoa aberasteko lanetan parte hartzea, baita ekonomia garapenean eta gizartearen ongizatean ere.
 - c) Kalitatezko goi mailako irakaskuntza eskaintza, ikasleen heziketa osoa bultzatzea, eta lanean hasteko beharrezkoa den prestakuntza ziurtatzea.
 - (...)
 - e) Profesionalen etengabeko prestakuntza eta goi mailako irakaskuntza eskatzen duten gizarteko beste taldeen etengabeko prestakuntza edo bizitza osoko prestakuntza sustatzea.
 - f) Unibertsitate zabalkuntza eta hedakuntza bultzatzea, batez ere gizarte eta kultura mailen arteko aldeak gutxitzera zuzenduak, bai eta bizitza politiko, kultural eta sozialean hobeto parte hartzeko baldintzak sortzen zuzenduak ere.
 - g) Nazioarteko trukea eta lankidetza indartzea, bereziki Europako esparruan eta garapenerako lankidetzaren alorrean.
 - h) Harremanak izatea eta hitzarmenak egitea erakunde publiko eta pribatuekin, UPV/EHUKO tituludunen prestakuntza hobea izan dadin eta, ondorioz, lanean hasteko aukera gehiago izan dezaten.
2. UPV/EHUK honako hauek sustatuko ditu:
- (...)
- c) Elkarbizitza demokratikoa eta euskal gizartearen garapen jasangarri eta bidezkoa, errebusututa terrorismo eta biolentzia mota guztiak.
 - d) Mundura irekitako jarduera plural, tolerante eta solidarioa, aitzindari intelektual eta etikoa izateko bokazioaz.” (2011, 3-4 orr.)

- UPV/EHUREn 2022-2025 PLAN ESTRATEGIKOAK nabamentzen du UPV/EHUK ikasle bakoitzaren prestakuntza integrala bultzatu nahi duela, erronka sozialei, tokikoei eta globalei erantzun ahal izateko, horretarako funtsezko delarik diziplinaz besteko lankidetza egitea.

“3. EGINKIZUNA ETA IKUSPEGIA

(...)

Honako hau du eginkizun:

UPV/EHU euskal unibertsitate publikoa da, eta konprometituta dago euskal kulturarekin, gizarte erronkekin eta garapen jasangarriarekin, prestakuntzaren, ikerketaren, ezagutzaren transferentziaren eta toki nahiz mundu mailako aliantzen bidez, jakintzaren adar guztieta.

Ikuspegia

- UPV/EHUk bere ikasleei ematen dien prestakuntza ikerketan eta pentsamendu kritikoan oinarrituta dago, metodo zientifikoa erabilita. Garapen jasangarriarekin inplikatuta dagoen prestakuntza bat da. Unibertsitateak aukera ematen die ikasleei beren buruak intelektualki eta giza ikuspegitik garatzeko, eta ingurunea eraldatzeko gaitasuna eskuratzen dute, modu etiko batean eta sormena erabilita, gero eta gehiago eskatzen duen ingurune aldakor batean.
- UPV/EHUk bere ikerketa eredua indartu nahi du, gizarte, kultura, ekonomia eta ingurumen arloetako erronka berrietara orientatua eta erronka horiekin konprometitua, Diziplinaz gaindiko eta nazioarteko lankidetza sustatuz, baita ingurumen sozioekonomikoaren lankidetza ere, jakintzaren bidez gizarte eraldaketan lider izateko bokazioarekin.
- UPV/EHU, Euskadiko erakunde ikertzaile nagusia izanik, aliatu natural gisa identifikatzen da trantsizio digitalaren, trantsizio energetikoaren eta kohesio digitalaren desafioei aurre egiteko lurraldean garatzen diren I+G+b proiektuetan.
- UPV/EHU bere inguruan sustraitutako unibertsitate bat da, irekia eta iragazkorra, eta bi norabideko inpaktua eragiteko helburua du. Erreferentzia eta identifikazio eredu izan nahi du euskal gizartearentzat.

ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Jaso dira Unibertsitateko ikaskuntza zerbitzuaren (APS(U)) prozesuekin lotutako 2022-2025 plan estrategikoaren helburuak eta ekintzak. Hurrengo taulan bildu dira ardatzak eta helburuak eta ekintzak eranskinean.

1. taula. 2022-2025 plan estrategikoaren ardatzak eta helburuak, I-Zren prozesuekin lotuta

ARDATZ ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK
I. ARDATZA: PRESTAKUNTZA	<p>01. HELBURUA Oreka lortzea batik bat egonkorra eta tokiko den graduen eskaintzaren eta dinamikoagoa eta nazioartekoagoa den graduondokoen eskaintzaren artean.</p> <p>05. HELBURUA Bultzada ematea IKD hezkuntza ereduari eta GJHekin konprometitako irakaskuntza berrikuntzako esparru berriari, diziplina anitzeko prestakuntza indartuta, baita zeharkako gaitasunak eta gaitasun digitalak ere.</p>
II ARDATZA: IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA	<p>05. HELBURUA Bultzada bat ematea gizartearen kultura aberastasunean zuzeneko eragina duen ikerketaren aitortzari.</p>
III ARDATZA: KULTURA ETA GIZARTEA	<p>01. HELBURUA Gizartearekiko komunikazioa hobetzea, baita ezagutzaren dibulgaziona eta UPV/EHUREn kultura legatua ere.</p> <p>02. HELBURUA Lankidetza hitzarmenak eta proiektuak babestea, euskal sare sozioekonomiko eta kulturalarekin.</p> <p>04. HELBURUA Erreferentzia eredu gisa indartzea genero berdintasunean, inklusioan eta garapen jasangarrian.</p> <p>05. HELBURUA Gizarteak bere osotasunean dituen beharrei, desafioei eta arazoei loturiko esku hartzeak egitea irakaskuntzan, ikerketan eta ezagutzaren transferentzian.</p>
IV. ARDATZA: PERTSONAK	<p>06. HELBURUA Pertsonen egokitzapena eta prestakuntza indartzea, aintzat harturik unibertsitatearen egiteko eta ikuspegia.</p>
IV. ARDATZA: GOBERNANTZA ETA BALIABIDEAK	<p>05. HELBURUA Gizarte desafioei eta GJHei erantzungo dieten proiektuak aurkeztea, Next Generation Funtsen deialdiak (NGEU) erabilita, besteak beste.</p> <p>07. HELBURUA Finantzaketa publikoa eta pribatua hobetzea, kontuan hartuz beti gure unibertsitatearen helburua: zerbitzu publikoa.</p>

Plan horretan bertan UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2010ean onartutako **IKD – Ikaskuntza Kooperatiboa eta Dinamikoa eredu** jasotzen da. Eredu propioa, kooperatiboa, eleanitzuna eta inklusiboa da. Eeduak azpimarra jartzen du ikasleek ikaskuntzaren protagonistak izan behar dutela adieraziz eta, beraz, apustua egiten du prestakuntza integral, malgu eta gizartearen beharretara egokituan alde (Alonso et al., 2019). Azken urteotan, hezkuntza eredu hori berritu egin da, egungo orientazio pedagogikoekin eta UPV/EHUk gainerako erakunde publiko eta pribatuek 2030 Agendaren eta Garapen Jasangarriko Helburuen (GJH) esparruan bere egin eta gain hartutako lehentasun politiko eta konpromisoekin bat egiteko. Izen ere, Nazio Batuetako estatu kide guztiekin 2015. urtean onartu zuten ekintzarako dei unibertsala, pobrezia amaitu, planeta babestu eta mundu osoko pertsonen bizitzak eta perspektibak hobe daitezten. Birmoldaketaren emaitza IKD i3 dugu; (“i ber hiru”: ikaskuntza x ikerkuntza x iraunkortasuna); hau da, prozesu eta produktu ineditoak ahalbidetuko dituen termino bakoitzaren hazkunde esponentziala.

- "EHUagenda 2030, Garapen iraunkorraren alde" izenekoak, ibilbide orria ezartzen du UPV/EHUraren lana planetaren erronka handiekin lerroka daitezen eta aipatzen du helburuen artean "irakaskuntza eta ikaskuntza politikak, berdintasuna, inklusioa eta ingurumen kudeaketa garatzea logika komun integratu baten bidez, epe ertain luzera (2019-2025 eta 2025-2030) ezagutzeko eta neuritzeko moduko helburuekin". Kanpotik begiratuta, beharrezko jotzen du gizarteko beste eragile batzuekiko loturak areagotzea. Eragile horiek lankidetza puntuatistik harago joan beharko dute, eta lankidetza estrategikorako aliantza gisa jardun beharko dute. UPV/EHUraren Zeharkako Gaitasunen Katalogoa 2019ko maiatzean onartu zen, eta bertan deskribatzen da beharrezkoa dela ikasleek, mundu globalizatu baten erronkei aurre egingo badie, zeharkako konpetentziak eskura ditzaten, curriculumean zehar ikasgai eta ikaskuntza testuinguru desberdinietan landutakoak.

I-Zren DEFINIZIOA ETA ELEMENTUAK

I-Z hezkuntza proposamena da, **ikaskuntza prozesuak eta komunitateari zerbitzua emateko prozesuak proiektu bakar batean konbinatzen dituena**, non proiektuan dihardutene parte hartzialeak trebatzen baitira inguruneko benetako premietan lan einez, ingurune hori hobetzeko helburuaz (Aprenentatge Servei, 2016; De la Cerda et al., 2009; Gijón, 2015; McIlrath, 2016; Puig eta Palos, 2006; Tapia, 2001; Zerbikas, 2008). Jarduera konplexua da, komunitateari eskainitako zerbitzua eta edukien, gaitasunen, trebetasunen edo balioen ikaskuntza integratzen baititu, hausnarkako praktikatik abiatuta.

honako eragile hauek ezinbestekoak dira jarduera hau behar bezala garatu ahal izateko:

1. irudia: [I-Z PROIEKTUETAKO PARTE HARTZAILEAK](#)



Garrantzitsua da ulertzea zer EZ DEN Ikaskuntza – Zerbitzua. Hurrengo irudiak laguntzen digu hezkuntza praktika mota desberdinen arteko desberdintasuna ulertzen, horiekin nahas baitaiteke I-Z:

2. irudia: **IKASKUNTZA ZERBITZUAREN KOADRANTEAK**



Puig, Batlle, Bosch eta Palosenetik hartua (2007, 24. or.)

Hona hemen I-Z proiektu bat identifikatzen duten elementuak (Aranburuzabala et al., 2015; Capella Peris et al., 2020; Chiva Bartoll et al., 2019; Escofet et al., 2016; Puig et al., 2007; Zerbikas, 2008):

- **Ikaskuntzarik** jaso behar dute parte hartzen duten alderdi guztiek.
- Komunitateak **zerbitzu bat** jaso behar du, gizartean dauden benetako premien gainean jardutearen logikari jarraiki.
- Esperientzian dihardutene eragileek **parte hartzte aktiboa** izan behar dute, ikasleen protagonismoa azpimarratzu.
- **Hausnarketak** zeharkako elementua izan behar du prozesuan zehar.
- **Proietkua** izan beharra dago, ekimen honek beharrezko duen plangintza guztia artikulatuko duena. Eta ekintzaren asmo pedagogikoaren adierazgarri garbia izan behar du.

I-Zren ONURAK

Laburpen gisa, aurkezten dugu hurrengo taulan, I-Zk hezkuntza komunitateari eta, oro har, gizarteari zuzenean eta zeharka dakarzkiengi onura nagusien zerrenda, hainbat egilek aipatu dituztelarik:

2. taula: **I-Zk DAKARTZAN ONURAK**

Agintariei, administrazio publikoa 0}	Aukera bat da hezkuntza politika berriak garatzeko eta curriculum erreformak ezartzeko (Bender et al., 2006; Cecchi, 2006; Malacrida, 2012; Zerbikas, 2008).
Hezkuntza erakundeari berari	Eskaintzen dio inguratzen duen ingurunera zabaltzeko aukera (lojo et al., 2017; Candela Soto et al., 2021; McIlrath, 2016; Zerbikas, 2008), bai eta gertuko komunitateak integratzeko ere, ikasleekiko prestakuntza misioa alde batera utzi gabe.
Komunitateari	Ahaldundua suerta daiteke egunerokoan dituen arazoei aurre egiteko; indartzen da sare lana, herritar hezkuntza eraikitzea lana, gizartea, komunitatea, agertoki pedagogiko gisa... indartzen direlarik (Candela Soto et al., 2021; Carrica, 2013; Martínez – Odriá, 2007; Schmidt & Robby, 2002; Zerbikas, 2008).
Irakasleei	Irakaskuntzaren hobekuntzarekin lotutako onurak, komunitatearekiko gizarte erantzukizunean laguntzen du; ikerketa aukerak garatzen; eta ikaslek eskuratutako ikaskuntzen kalitatetik eratorritako gogobetetze profesionala handitzen laguntzen du (Alonso et al., 2019; Carrica, 2013; Eyler et al., 2001; Martín et al., 2010; Willis, 2002).
Ikasleei berei	<ul style="list-style-type: none"> ● Garapen kognitiboa eta akademikoa (Eyler & Giles, 1999; Prentice & Robinson, 2010; Rubio, 2009; Santos Pastor et al., 2021). ● Bokazio eta lanbide garapena (Puig et al., 2011; Rubio, 2009; Santos Pastor et al., 2021). ● Garapen pertsonala (Eyler & Giles, 1999; Puig et al., 2011; Santos Pastor et al., 2021). ● Garapen soziala eta justizia soziala (Aranburuzabala et al., 2015; Butler et al., 2021; Escofet et al., 2016; Gil, 2012; Puig et al., 2011; Rubio, 2009; Santos Pastor et al., 2021; Zygmunt et al., 2020). ● Garapen zibikoa (Alonso et al., 2015; Aznar & Ull, 2009; Eyler & Giles, 1999; Zerbikas, 2008). ● Garapen etikoa eta morala (Batlle, 2011; Butler et al., 2021; Martínez, 2010; Mendía, 2012; Zygmunt et al., 2020).

I-Z UNIBERTSITATE TESTUINGURUAN

A) I-Z NAZIOARTEKO PANORAMAN

Hamaika sare dira nazioarte, eskualde eta estatu mailan konpromiso zibikoaren eta Unibertsitateak konpromiso horretan izan behar duen eginkizunaren inguruko topagune izatea helburu dutenak. Horietan guztietan funtsezko eginkizuna du I-Zk. Ikus ditzagun zenbait adibide:

3. taula: **I-Z SUSTAPENARI LOTUTAKO SARE BATZUK GOI MAILAKO HEZKUNTZAN**

Campus Compact¹ (EEUU)

¹ <http://compact.org/>

National Service-Learning Clearinghouse - NSLC (EEUU) ²
Canadian Alliance for Community Service-Learning ³
El Centro Latinoamericano de Aprendizaje y Servicio Solidario- CLAYSS ⁴
Red Iberoamericana de Aprendizaje-Servicio ⁵
Gazte Zerbitzu Nazionalerako Nazioarteko Elkartea (IANYS) ⁶
The International Association for Research on Service-Learning and Community Engagement (IARSLCE) ⁷
Talloires ⁸ sarea
Engagement Australia ⁹
Service-Learning Asia Network (SLAN) ¹⁰
Hochschulnetzwerk (Alemania) ¹¹
Campus Engange (Irland) ¹²
National Coordinating Centre for Public Engagement -NCCPE- (Reino Unido) ¹³
Red Universitaria española de Aprendizaje–Servicio-- ApS(U) ¹⁴
Asociación Española de Aprendizaje - Servicio Universitario ¹⁵
Goi mailako Hezkuntzako Ikaskuntza Zerbitzuaren Europako Behatokia (EOSLHE) ¹⁶

B) I-Z EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ETA ESTATU MAILAN

Estatu mailan nabarmendu behar dugu **ApS(U) sarearen** papera. Sarea (2010eko azaroaren 3an) sortu zen, I-Z sustatzen duten ikasgune batzuek testuinguru horretan egin izan duten hirugarren elkarretaratzean. Sare honen helburu nagusia da eragitea prestakuntza, irakaskuntzaren berrikuntza, ikerketa eta ebaluazioaren arloetan, bai eta unibertsitateko irakasleen artean I-Z proposamenaren hedatzea ere.

² <http://www.studentclearinghouse.org/>

³ <http://www.communityservicelearning.ca/en/>

⁴ <http://www.clayss.org.ar/>

⁵ <http://www.clayss.org.ar/redibero.htm>

⁶ <http://www.clayss.org.ar/ianys/IANYS.HTM>

⁷ <http://www.researchslce.org/>

⁸ <http://talloiresnetwork.tufts.edu/que-hacemos/que-es-la-red-talloires/>

⁹ <http://engagementaustralia.org.au/>

¹⁰ <http://www.ln.edu.hk/osl/slans/>

¹¹ <http://www.netzwerk-bdv.de/content/home/index.html>

¹² <http://www.campusengage.ie/>

¹³ <http://www.publicengagement.ac.uk/>

¹⁴ <https://sites.google.com/site/redapsuniversitario/home/mision>

¹⁵ <https://www.apsuniversitario.org/>

¹⁶ <https://www.eoslhe.eu/>

Azpimarratu behar da, martxan jarri zenetik, estatuko hainbat elkarretaratze eta kongresu egin direla, I-Z garatzen duten hainbat unibertsitate edo unibertsitate multzo egoitzak izanik:

- 2010 Bartzelona (Bartzelonako Unibertsitatea)
- 2011 Bartzelona (Bartzelonako Unibertsitatea)
- 2012 Bartzelona (Bartzelonako Unibertsitatea)
- 2013 Bilbo (Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea)
- 2014 Madril (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, Madrilgo Unibertsitate Konplutensea, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa, Rey Juan Carlos Unibertsitatea)
- 2015 Granada (Granadako Unibertsitatea, Almeriako Unibertsitatea, Pablo de Olavide Unibertsitatea)
- 2016 Santiago de Compostela (Santiagoko Unibertsitatea)
- 2017 Sevilla (Pablo de Olavide Unibertsitatea, Sevillako Unibertsitatea, Loyola Andaluzia Unibertsitatea eta Ces Cardenal Spínola CEU)
- 2018 Madril (Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, Comillasako Unibertsitate Pontifizioa)
- 2021 Kanariak (Kanariar Uharteetako Unibertsitatea, La Lagunako Unibertsitatea, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala)
- 2023 Bartzelona (ApSUCat, Xarxa d'Aprenetatge Servei de les Univers, Universitat Autònoma de Barcelona, Universitat de Barcelona, Universitat Politècnica de Catalunya, Universitat Rovira i Virgili, Universitat de Girona, Universitat de Lleida, Universitat Pompeu Fabra, Universitat Ramon Llull, Universitat Oberta de Catalunya, Universitat Internacional de Catalunya, Universitat de Vic, Universitat Abat Oliba)

EAEn ez dago berez unibertsitateko nukleo eragilerik, baina DU, MU eta UPV/EHUn arteko lankidetza prozesu sistematikoak ari dira gauzatzen:

- Unibertsitate sare honen elkarretaratze eta Kongresua antolatu zen 2013an (Bilbo).
- "IKASKUNTA-ZERBITZUA ESPAINIAKO UNIBERTSITATEAN GAUR: KANPOKO AZTERKETA" azterlana egin da.
- Parte hartzen dute Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioa Euskadin sustatzen duen ZERBIKAS¹⁷ zentroan.
- UPV/EHU harremanetan jarri da DUREkin eta MUREkin, 2025. urteean egingo den ApS(U)ren hurrengo Kongresu Nazionala eta Nazioartekoa elkarrekin antolatzeko lehendabiziko urratsak egiteko.

C) I-Z UPV/EHUn: AURREKARIAK

Hainbat ekintza garatzen ari dira UPV/EHUn I-Z sustatzeko eta aztertzeko. Jarraian zerrendatuta ikus ditzakegu:

¹⁷ <http://www.zerbikas.es/>

4. taula: I-Zren SUSTAPENA ETA AZTERLANA UPV/EHUren BARRUAN

JARDUN ILDOA	EKINTZA ZEHATZA
IRAKASLEENTZAKO PRESTAKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> - I-Z ikastaroa, UIPPk antolatuta. 2011ko urtarrila (Gaztelania. Leioa) - Irakasleen sentsibilizazioari buruzko I-Z jardunaldia. 2012ko azaroa (Leioa) - Gizarte Laneko UEko irakasleentzako prestakuntza. 2014ko uztaila (Gasteiz) - Irakasleek hasitako I-Z proiektuen jarraipena eta laguntza. 2012-2013 ikasturtekit: <ul style="list-style-type: none"> - I-Z ikastaroa, UIPPk antolatuta. 2022ko ekaina (Gaztelaniaz. Leioa) - I-Z ikastaroa, UIPPk antolatuta. 2023ko urtarrila (Euskara eta Gaztelania. Leioa)
IKASLEENTZAKO PRESTAKUNTZA	<p>I-Z proiektuak (irakasgai, GRAL, MAL eta besterik lotuta) 2011 eta 2023 urteen artean identifikatuta¹⁸:</p> <ul style="list-style-type: none"> - ZUZENBIDEKO GRADUA (GIPUZKOA) - HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA (ARABA) - LEHENENGO HEZKUNTZAKO GRADUA (ARABA) - LEHENENGO HEZKUNTZAKO GRADUA (BIZKAIA) - GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA (BIZKAIA) - ERIZAINTZAKO GRADUA (BIZKAIA) - FARMAZIAKO GRADUA (ARABA) - INGENIARITZAKO GRADUA ("MUGARIK GABEKO INGENIARITZA" ekimenaren bidez) - INGENIARITZA NAUTIKO ETA ITSAS GARRAIOKO GRADUA (BIZKAIA) - PEDAGOGIAKO GRADUA (GIPUZKOA) - SOZIOLOGIAKO GRADUA (BIZKAIA) - GIZARTE LANGINTZAKO GRADUA (ARABA) - DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO ETA BATXILERGOKO, LANBIDE HEZIKETAKO ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAKO IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA.

¹⁸ Litekeena da hauetakoren bat eskuragarri ez egotea.

	<ul style="list-style-type: none"> – IKD GAZtE projektua: PSIKOLOGIA/GIZARTE HEZKUNTZA/INGENIARITZA INFORMATIKOA/ERIAINTZA (GIPUZKOA)
ERAKUNDE LAGUNTZAILEEKIKO HITZARMENAK	<ul style="list-style-type: none"> – I-Zrako hitzarmenak formalizatzeko zirriborroa prestatzea. – Onartu zain dago.
IKERKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> – “<i>EL APRENDIZAJE-SERVICIO (A-S) EN LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO (UPV/EHU) EN SU CAMINO HACIA SU INSTITUCIONALIZACIÓN</i>” [IKASKUNTZA-ZERBITZUA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN (UPV/EHU): <i>I-Zren INSTITUZIONALIZAZIORAKO BIDEAN</i>] doktorego tesia, 2014an defendatua (Egilea: Monika Gezuraga Amundarain). – APRENDIZAJE-SERVICIO EN LA UNIVERSIDAD ESPAÑOLA HOY: ESTUDIO DE CAMPO [IKASKUNTZA-ZERBITZUA ESPAINIAKO UNIBERTSITATEAN GAUR EGUN: KANPO AZTERKETA] azterlanean parte hartza (EAeko 3 unibertsitateek hartzen dute parte). – ESTUDIO DIAGNÓSTICO COMPRENSIVO SOBRE PROYECTOS DE APRENDIZAJE Y SERVICIO: ELABORACIÓN DE UNA GUÍA DE BUENAS PRÁCTICAS [IKASKUNTZA ETA ZERBITZUA PROIEKTUEI BURUZKO AZTERKETA DIAGNOSTIKO ULERKORRA: JARDUNBIDE EGOKIEN GIDA BAT EGITEA] ikerketa (Estatu mailako unibertsitateek hartzen dute parte) – EVALUACIÓN DE IMPACTO A LARGO PLAZO EN LA FORMACIÓN INTEGRAL E INSERCIÓN LABORAL DE GRADUADOS EN VETERINARIA QUE PARTICIPARON COMO ESTUDIANTES EN UN PROYECTO DE A-S [I-Z PROIEKTU BATEAN PARTE HARTZEAK ALBAITARITZAKO IKASLE GRADUATUEN PRESTAKUNTZA INTEGRALEAN ETA LANERATZEAN EPE LUZEAN IZANDAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA] izeneko ikerketa (UBA, UB eta UPV/EHUren parte hartza). – La Investigación en Aprendizaje-Servicio (IApS), por una educación transformadora de calidad hacia una sociedad más justa [Ikaskuntza-Zerbitzurako Ikerkuntza (IZI), kalitatezko hezkuntza eraldatzailearen alde, gizarte justuago baterantz] egiten ari den ikerketa proietktua (UPV/EHU)

	<ul style="list-style-type: none"> – “Aprendizaje-servicio universitario en actividad física y deporte, oportunidad para la inclusión social” [<i>Unibertsitateko ikaskuntza-zerbitzua jarduera fisikoan eta kirolean, gizarteratzeko aukera</i>] Ikerketan parte hartzea. ACTIVAT@S. Erref. PID2019-105916RB-I00. (UAM, UGR, UB, UDLA, UJI, URJ, UVA, ULL (Txile), UV (Txile), PUCV (Txile) eta UPV/EHUren parte hartza) – Transformando realidades: Universidad y Comunidad cooperando en aras de humanizar la educación a través del Aprendizaje-Servicio en los Trabajos Fin de Grados (TFG) y Trabajos Fin de Master (TFM) [<i>Errealitateak eraldatzen: Unibertsitatea eta Komunitatea lankidetzen, hezkuntza gizatiartzeko, Gradu Amaierako Lanen (GRAL) eta Master Amaierako Lanen (MAL) ikaskuntza-zerbitzuaren bidez</i>] izeneko ikerketa. (UPV/EHU) (Abian) – Análisis multidimensional del impacto socioeducativo de iniciativas musicales comunitarias y de aprendizaje-servicio en la escuela: el programa MUSIQUEM [<i>Komunitate mailako eta ikaskuntza-zerbitzuaren bidezko musika ekimenek eskolan gizarte eta hezkuntza eraginaren azterketa multidimentsionala: MUSIQUEM programa</i>] EDU2017-86311-P ikerketa. - ¡Mueve la Música! Análisis de un programa escolar sociocomunitario de Aprendizaje-Servicio a partir de la práctica musical y la expresión corporal (MOVEMUS) [<i>Mugitu musika! Ikaskuntza-Zerbitzurako programa soziokomunitario bat aztertzea, musika praktikatik eta gorputz adierazpenetik abiatuta (MOVEMUS)</i>] (Abian) PID2020 116198GB I00 ikerketan parte hartza.
ZABALKUNDEA	<p>ZABALKUNDEA</p> <p>KOMUNIKAZIOAK KONGRESUETAN; JARDUNALDIAK...:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Psikodidaktika Jardunaldiak (Leioa, 2012): “Revisión del estado del Aprendizaje – Servicio en la Universidad del País Vasco” [<i>Ikaskuntza Zerbitzuaren egoeraren berrikuspena Euskal Herriko Unibertsitatean</i>] - ApS (U) III (Bartzelona, 2012): “La incorporación del Aprendizaje-Servicio en el contexto de la Universidad del País Vasco. Iniciando un camino” [<i>Ikaskuntza zerbitzua Euskal Herriko Unibertsitatearen testuinguruan sartzea. Bide batik ekiten</i>]

	<ul style="list-style-type: none"> - ApS(U) IV (Bilbo, 2013): <p>“Intervención socioeducativa con personas adultas en el centro de Educación de Personas Adultas de Galdakao: Una experiencia de Aprendizaje Servicio” [<i>Helduekin gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzea Galdakaoko Helduen Hezkuntzako ikastetxean: Ikaskuntza Zerbitzuko esperientzia bat</i>]</p> <p>“Reflexionando desde la praxis sobre la democratización de los procesos de enseñanza-aprendizaje: una experiencia de APS en la asignatura de Didáctica en el grado de Educación Social (UPV/EHU)” [<i>Irakaskuntza ikaskuntza prozesuen demokratizazioari buruzko gogoeta eginez praxitik: APS esperientzia bat Gizarte Hezkuntzako graduoko Didaktika irakasgaien (UPV/EHU)</i>]</p> <p>“IKD GAZtE. Proyectos multidisciplinares de carácter social para el desarrollo del Sentido de la Iniciativa; una experiencia de autogestión” [<i>IKD GAZtE. Ekimenaren zentzua garatzeko gizarte izaerako diziplina anitzeko proiektuak; autokudeaketarako esperientzia bat</i>]</p> <p>“Astra-Gernika: de Fábrica de Armas a Fábrica Social para la Cultura” [<i>Astra Gernika: Arma Fabrikatik Kulturarako Fabrika Sozialera</i>]</p> <p>“Sensibilización para realizar voluntariado en la ‘‘Comisión ciudadana antisida de Bizkaia’’ entre estudiantes de la UPV/EHU” [<i>UPV/EHUko ikasleen artean “Bizkaiko HIESaren aurkako herritarren batzordean” boluntariatza egiteko sentsibilizazioa</i>]</p> <p>“Proyecto ApS: Mantenimiento de la Colección de Cartas Náuticas del Buque-Escuela Saltillo” [<i>ApS projektua: Saltillo Eskola Urpekariaren Karta Nautikoen Bilduma mantentzea</i>]</p> <p>“Planificación de la intervención en Educación Social: una aproximación mediante la propuesta de Aprendizaje-Servicio (A-S)” [<i>Gizarte Hezkuntzako esku hartzearen plangintza: hurbilketa bat ikaskuntza zerbitzurako (I-Z) proposamenaren bidez</i>]</p> <p>“Acercándonos a las metodologías de intervención socioeducativa a través del Aprendizaje – Servicio” [<i>Gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko metodologietara hurbilduz, Ikaskuntza Zerbitzuaren bidez</i>]</p>
--	---

“Diseño y evaluación de dos asignaturas en el grado de Educación Social en la EHU a través de la metodología APS” [UPV/EHUren Gizarte Hezkuntzako graduoko bi irakasgai diseinatzea eta ebaluatzea, APS metodologiaren bidez]

IKD Jendartea -2013 (Leioa, 2013):

“El Aprendizaje – Servicio en la Educación Social: contribución desde el TFG” [Ikaskuntza Zerbitzua Gizarte Hezkuntzan: GRALen bidezko ekarpena]

“Esku-hartzearen plangintza Gizarte Hezkuntzan: Ikasketa Zerbitzutik eginiko gerturatzea”

“Experiencia interdisciplinar de Aprendizaje – Servicio en el Grado de Educación Social” [Ikaskuntza Zerbitzuko diziplinarteko esperientzia Gizarte Hezkuntzako Graduan”

- **ApS(U) V (Madrid, 2014):**

“Avance de la tesis doctoral: El Aprendizaje-Servicio (A-S) en la Universidad del País Vasco (UPV/EHU): En el camino hacia su institucionalización” [Doktorego tesiaren aurrerapena: Ikaskuntza Zerbitzua (I-Z) Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU): Instituzionalatzeko bidean”

“La línea “Aprendizaje-Servicio” en el TFG del Grado de Educación Social: Un pequeño paso hacia la institucionalización” [ikaskuntza Zerbitzua” ildoa Gizarte Hezkuntzako Graduko GRALetan: instituzionalizaziorako urrats txiki bat]

- **IKASNABAR 7th International Conference on Open Education and Technology (Bilbao, 2014):**

“Aprendizaje Servicio, Tecnologías de la información y la comunicación y formación de futuros educadores sociales. Una relación llena de futuro” [ikaskuntza Zerbitzua, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta etorkizuneko gizarte heitztaileen prestakuntza. Etorkizunez beteriko harremana.]

	<ul style="list-style-type: none"> - I International Congress of Educational Sciences and Development (Santander, 2014): “Una experiencia interdisciplinar en el Grado de educación Social, a través de la metodología de Aprendizaje-Servicio” [<i>Diziplina arteko esperientzia Gizarte Hezkuntzako Graduan, Zerbitzurako Ikaskuntza metodologiaren bidez</i>] - ApS(U) VI (Granada, 2015): “La colaboración del alumnado de Educación Social en procesos de investigación: adquisición de competencias profesionales” [<i>Gizarte Hezkuntzako ikasleen lankidetza ikerketa prozesuetan: gaitasun profesionalak eskuratzea</i>] - Zerbitzurako ikaskuntzari buruzko ikertzaileen III. Jardunaldia (Buenos Aires, 2015): “Estudio diagnóstico comprensivo sobre proyectos de aprendizaje-servicio: avances de la investigación” [<i>Ikaskuntza Zerbitzurako proiekturei buruzko azterketa diagnostiko ulerkorra: ikerketaren aurrerapenak</i>] “El aprendizaje-servicio en la Universidad del País Vasco: en el camino hacia su institucionalización” [<i>Ikaskuntza zerbitzua Euskal Herriko Unibertsitatean: erakundetzeko bidean</i>] - Unibertsitate Irakaskuntzako III. Ikerketa Jardunaldia (Barcelona, 2015) “Estudio diagnóstico comprensivo sobre proyectos de aprendizaje y servicio: elaboración de una guía de buenas prácticas” [<i>Ikaskuntza zerbitzu proiekturei buruzko azterketa diagnostiko ulerkorra: jardunbide egokien gida bat egitea</i>] - Berrikuntza Pedagogikoari eta Hezkuntza Praxiari buruzko Nazioarteko III. Kongresua (Sevilla, 2016) “El Service - Learning y la formación en TIC en el Grado de Educación Primaria” [<i>Service Learning eta IKT arloko prestakuntza Lehenengo Hezkuntzako Graduan</i>] - Unibertsitate irakaskuntzari buruzko IX. Kongresu iberoamerikarra (Murtzia, 2016)
--	--

	<p>“Estableciendo puentes entre la universidad y la Comunidad: el Service - Learning en la Universidad del País Vasco” [<i>Unibertsitatearen eta komunitatearen artean zubiak ezarriz: Service Learning Euskal Herriko Unibertsitatean</i>]</p> <ul style="list-style-type: none"> - APS (U) VII (Santiago de Compostela, 2016): <p>“Evaluando la inserción laboral y la formación integral de graduados/as de Veterinaria que han participado en un proyecto de Aprendizaje y Servicio. Validación de un instrumento” [<i>Ikaskuntza eta Zerbitzuko proiektu batean parte hartu duten albaitaritzako graduatuen laneratzea eta prestakuntza integrala ebaluatuz. Tresna bat baliozkotzea</i>]</p> <p>“Comienzo de una experiencia de aprendizaje-servicio universitario a través de los trabajos de fin de grado (TFG) de Educación Infantil y Primaria en la Facultad de Educación y Deporte de Vitoria-Gasteiz de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU)” [<i>Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean Haur eta Lehenengo Hezkuntzako gradu amaierako lanen (GRAL) bidez unibertsitate ikaskuntza zerbitzuko esperientzia bati hasiera ematea</i>]</p> <p>“Compromiso social y aprendizaje servicio: desde EHU/UPV a la gestión de proyectos en los barrios de Vitoria Gasteiz” [<i>Konpromiso soziala eta ikaskuntza zerbitzua: UPV/EHUtik projektuen kudeaketara Gasteizko auzoetan</i>]</p> <p>“Experiencia de aprendizaje-servicio implementada en la Facultad de Relaciones Laborales y Trabajo Social de la UPV/EHU” [<i>UPV/EHUko Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatean ezarritako ikaskuntza zerbitzurako esperientzia</i>]</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jardunaldi akademikoa: ikaskuntza zerbitzua. Ebaluazioaren erronkak. UHUN (Madril. 2017) “La evaluación de los proyectos de A-S. ¿Quiénes, qué, cuándo y cómo se evalúan?” [<i>I-Z projektuen ebaluazioa. Nortzuk, zer, noiz eta nola ebaluatzen dira?</i>] - Ikaskuntza Zerbitzuari buruzko ikertzaileen IV. Jardunaldia (Buenos Aires, 2017):
--	---

	<p>“Impacto en profesionales que han participado en un proyecto de A-S: Competencias adquiridas” [<i>I-Z proiektu batean parte hartu duten profesionalengan duen eragina: eskuratutako gaitasunak</i>] “Impacto en profesionales que han participado en un proyecto de A-S: Miradas valorativas” [<i>I-Z proiektu batean parte hartu duten profesionalengan duen eragina: balorazio begiradak</i>]</p> <ul style="list-style-type: none"> - APS (U) VIII (Sevilla, 2017): APS (U) VIII (Sevilla 2017): “Competencias y valores desarrollados por alumnas de Educación Infantil a través de Aprendizaje-Servicio universitario que guía sus trabajos de fin de grado (TFG)” [<i>Haur Hezkuntzako neskek garatutako gaitasunak eta balioak, gradu amaierako lanak (GRAL) gidatzen dituen unibertsitateko ikaskuntza zerbitzuaren bidez</i>] “ABProblemas, ABProyectos, ABRetos... ¿legado de Dewey?, valor añadido del APS respecto a “otros” aprendizajes experienciales” [<i>ABProblemas, ABProyectos, ABRetos... ¿ Deweyren legatua?, APSren balio erantsia</i>” beste <i>“ikaskuntza esperientzialei”</i> dagokienez] “Promoviendo la Economía Solidaria y la Transformación Social a través del Aprendizaje - Servicio” [<i>Ekonomia solidarioa eta gizarte eraldaketa sustatz, ikaskuntza zerbitzuaren bidez</i>] “Recuperar las voces e historia de la Educación Social. Una experiencia de A-S en el Grado de Educación Social en la UPV/EHU” [<i>Gizarte Hezkuntzaren ahotsak eta historia berreskuratzea. I-Zren esperientzia bat Gizarte Hezkuntzako Graduan UPV/EHUn</i>] “Una propuesta de guía docente para la impartición de una asignatura universitaria con la metodología de Aprendizaje-Servicio” [<i>Ikaskuntza Zerbitzurako metodologia duen unibertsitate irakasgai bat emateko irakaskuntza gidaren proposamena</i>] - APS (U) IX (Madrid, 2018): “ApS y competencias de responsabilidad social. Una experiencia desde el Trabajo Social” [<i>Ikaskuntza Zerbitzuak eta gizarte erantzukizuneko eskumenak. Esperientzia bat Gizarte Lanetik</i>] “Lantegi Batuak: Una experiencia de colaboración en el Trabajo de Fin de Grado de Educación Social de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU)” [<i>Lantegi Batuak: Lankidetza esperientzia Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Gizarte Hezkuntzako Gradu Amaierako Lanean</i>]
--	--

	<ul style="list-style-type: none"> - Irakasleak prestatzeko XIV. Kongresua. Sareak ehunduz: gizartea eraldatzeko elkarritzetan oinarritutako hezkuntzarantz. Madril (2018ko ekaina): <p>“Trabajos de Fin de Grado a través de Aprendizaje-Servicio: un análisis cualitativo de las narrativas del alumnado.” [<i>Gradu Amaierako Lanak Ikaskuntza Zerbitzuaren bidez: ikasleen narratiben azterketa kualitatiboa</i>]</p> - CUICIID 2018 (Madril, 2018) <p>“El Aprendizaje – Servicio y su institucionalización dentro de la Educación Superior. Algunos referentes internacionales” [<i>Ikaskuntza – Zerbitzua eta haren instituzionalizazioa Goi Mailako Hezkuntzaren barruan. Nazioarteko erreferente batzuk</i>] </p> - Unibertsitatea beste bat. Beste subjektu batzuk, beste jakintza batzuk, beste aliantza batzuk eraldatzen duen unibertsitate baterantz. II. jardunaldiak (Bilbo, 2018) <p>“Fortaleciendo vínculos Universidad-Sociedad con el Aprendizaje-Servicio Crítico y la Economía Social y Solidaria” [<i>Unibertsitatea Gizarte loturak sendotuz Ikaskuntza Zerbitzu Kritikoarekin eta Ekonomia Sozial eta Solidarioarekin</i>] </p> - VII. Ikaskuntza Zerbitzua Jardunaldiak Zaragozako Unibertsitatean (Zaragoza, 2018) <p>“El Aprendizaje – Servicio en la universidad. Los primeros pasos hacia su institucionalización” [<i>Ikaskuntza – Zerbitzua unibertsitatean. Erakundetzeko lehendabiziko urratsak</i>] </p> - Hezkuntza Inklusiboari buruzko XV. Nazioarteko Kongresua (Granada, 2018): <p>“La educación Inclusiva en el grado de Pedagogía de la UPV/EHU: una experiencia de Aprendizaje-Servicio” [<i>Hezkuntza inklusiboa UPV/EHUko Pedagogia graduau: ikaskuntza zerbitzurako esperientzia</i>] </p> - EUROSOTL 2019. Arlo berriak urratzen irakaskuntza eta ikaskuntzaren ikuspegi akademiko berri baten
--	---

